



## II. Jardunaldia

### ANIMALIEN TRATU TXARREN BIKTIMAK

#### Zuzenbide Penalaren funtzioa eta mugak, animalien babesean



#### STREAMING

<http://ehutb.ehu.eus/eu/directo/1.html>

**2016ko apirilaren 20a**

**9:30 - 17:00**

**Antonio Beristain entzunaretoa · Carlos Santamaria Zentroa  
Gipuzkoako Campusa. UPV/EHU**

**animalex**  
DERECHO ANIMAL



#### Aurkezpena eta helburuak

Gizaki ez diren animalien sentitzeko gaitasuna zientifikoki egiaztatu izanak eta horiek babestearen aldeko sentsibilizazioa gizartean gero eta handiagoa izateak aldaketak eragin ditu legeetan, bai babes estandar handiagoak lortzeko, bai portaera krudelak edo beste espezie batzuen alperreko sufrimendua eragiten dutenak zigortzeko.

Zigor arloan, 1995ean Espainiako ordenamendu juridikoan animalien tratu txarra falta gisa tipifikatu zenetik, arlo horretan egindako erreforma bakoitzean areagotzen joan da, animalien babes juridiko-penala.

Jardunaldi honen bidez, legeak izandako bilakaera hori aztertu nahi dugu, arreta berezia jarrita 2015ean egindako azken erreforman eta horren aplikazioaren alderdi praktikoetan, poliziaren eta auzitegien ikuspegitik.

Era berean, animaliak jabegoko gauzakizat hartzen duen lege kontsiderazioa zenbateraino ari den gaitzitzen aztertuko dugu, eta biktimaren kontzeptuaren inguruko gogoeta egingo dugu, animalien tratu txarren kasuetan.

Hori guztia, azken finean, animaliak hobeto babesteko Zuzenbide Penalak bete dezakeen eginkizunari buruz eztabaidatzeko eta, horrenbestez, gure gizartean horrelako indarkeria prebenitzeko.

Jardunaldian, parte hartuko du, halaber, Ertzaintzaren Zakur Unitateak, lanerako erabiltzen dituzten animalien gizarte eginkizun garrantzitsua erakusteko eta nola entrenatzen eta zaintzen dituzten azaltzeko.

## EGITARUA

|       |  |       |  |
|-------|--|-------|--|
| 09:30 | <b>Ongietorria eta jardunaldiaren aurkezpena</b><br><i>José Luis de la Cuesta Arzamendi jauna.</i><br>Zuzenbide Penaleko katedraduna (UPV/EHU) eta IVAC-KREIko zuzendaria.   | 12:40 | <b>III. mahaia.- ZUZENBIDE PENALAREN FUNTZIOA ETA HELBURUAK</b> <i>Ana Isabel Pérez Machío andrea.</i> Donostiako Zuzenbide Fakultateko dekanordea (UPV/EHU) eta Zuzenbide Penaleko irakasle titularra.  |
| 09:40 | <b>I. mahaia.- TIPIFIKAZIO PENALA ETA AUZITEGI JARDUERA</b><br><i>Aurkezpena: María González Lacabex andrea.</i><br>Animalien Zuzenbidean espezializatutako abokatua.  | 12:45 | <b>Sorky das Pont-en kasua. Animalien tratu txarren delituengatik kartzela zigorren exekuzioak.</b><br><i>Manuel Molina jauna.</i><br>Balear Uharteetako Abokatuen Elkargoko abokatua. Animalien Eskubideen aldeko Abokatuen Balearretako Elkarte. |
| 09:45 | <b>Animalien tratu txarra, Kode Penalean. Eboluzioa eta egungo tipifikazioa.</b><br><i>Marta Sánchez Recio andrea.</i><br>Gipuzkoako Ingurumen Fiskala.  | 13:15 | <b>Zuzenbide Penalaren ahalmena eta mugak, animalien babesean.</b> <i>Mercedes Landera Luri andrea.</i><br>Zuzenbide Penaleko irakasle doktorea, Euskal Herriko Unibertsitatean.   |
| 10:15 | <b>Polizia ikerketa eta instrukzioa, animalien tratu txarren kasuetan.</b><br><i>Alfredo Blanco González jauna.</i><br>Ertzaintzaren Ikerketa Kriminalerako eta Polizia Judizialerako Zerbitzu Nagusia. Ingurumen eta Hirigintza Saila.                  | 14:00 | <b>Etenaldia, bazkaria</b>   |
| 11:00 | <b>Etenaldia, kafea</b>  | 16:00 | <i>Aurkezpena: Miguel Alonso Belza jauna.</i> Abokatua eta kriminologoa. Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko prestakuntza diputatua.  |
| 11:20 | <b>II. mahaia.- ONDARE JURIDIKO BABESTUA.</b><br><i>Aurkezpena: Sonia Brena Alonso andrea.</i><br>SOS Bilbao Animaliak Babesteko Elkarteko presidentea.  | 16:45 | <b>Poliziaren esku hartzea zakurrekin: gizarte funtzioa eta animalien ongizatea.</b><br><i>Alfredo Michelena Múgica jauna.</i><br>Ertzaintzaren Zakur Unitatearen burua.   |
| 11:25 | <b>Sentient beings: kontzeptu zientifiko baten aplikazio juridikoa.</b><br><i>Teresa Giménez-Candela andrea.</i><br>Erromatar Zuzenbideko katedraduna. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren "Animalia Zuzenbidea eta Gizarte" masterraren zuzendaria. |       | <b>Kriminologia berdearen inplikazioak: Ikerketa proposamenak, jardunaldiaren ondorioetatik abiatuta.</b><br><i>Gema Varona Martínez andrea.</i><br>Euskal Biktimologia Sozietateko presidentea.   |
| 11:55 | <b>Biktimak, animalien tratu txarren delituan.</b><br><i>María José Bernuz Benítez andrea.</i><br>Zuzenbidearen Filosofiako irakasle titularra. Zuzenbide Fakultatea, Zaragozako Unibertsitatea.   |       |  |

**Izen-ematea doan. Plaza mugatuak. Informazio gehiago:**

gemmamaria.varona@ehu.es

Tel.: 943017471 (IVAC/KREI)